

PERTSONA BERDINA LEKU EZBERDINEAN

Ezagutzen ez dudan leku batean sartuta nago, ez da ez armairu bat ez kajoi bat, uste dut motxila batean sartuta nagoela, noski, gaur beroa egiten du, beraz, ez naute erabiliko. Dena beltza ikusten dut, baina mugitzen ari den garraio batean nago. Bagoaz.

Auto bateko atzeko partean nagoela uste dut, eta, ia bi ordu ondoren, autoa gelditu egin da, autotik eta motxilatik ateratzen naute eta nahiz hotz handia egin, ez naute beti bezala erabiltzen, besotik helduta baizik.

Orduak igaro ondoren, beste garraio batean sartzen naiz, hemen bero handia egiten duela nabari dut, beraz ez naute erabiltzen, lurrean uzten naute eta bidaia guztian ez dut ezer ikusten. Hegazkin batean nago, baina ez dakit nora joaten naizen.

Azkenean iristen gara, eta orain bai, erabiltzen naute hiri honetan hotz handia egiten duelako. Entzun dudan bezala, uste dut Berlinen nagoela. Kanean euria egiten du, eta asko bustitzen ari naiz, gainera, afal orduan zikindu egin naiz eta orban handi batekin joaten naiz orain duela denbora asko nire erdian. Uste dut bidaia osoan orbanarekin joango naizela.

Leku lehor batera iritsi naiz azkenean, uste dut hemen instalatuta geratuko naizela. Ikaragarria da logela. Litera pilo, leiho handiak eta bista oso politak. Logela ikusi ondoren, segidan zintzilik utzi naute literan, gauean zehar lehortzeko, hostelera iristeko bidean euria zenez, asko busti naizelako. Bat-batean logelako kortinak ireki eta ikaragarriko argia sartu da logelan, jendea hizketan entzuten dut eta ondoren presatzen.

Berriz hartzen naute kalera joateko. Gaur asko ibiliko gara, uste dut gaur gauza asko ikusiko ditudala eta asko bustiko naizela berriz. Eta hor nago ni, nire orbanarekin Alexander Platz, Check Point Charlie, Holocaust Memorial, Reichstag-a, Brandeburgoko atea eta historian zehar garrantzi handia izan dituzten gauzak ikusten. Hotz handia daukat eta osorik bustita nago, gainera jendea baztertzen ez denez, denbora guztian jendeak ni ukitzen nau eta ez zait batere gustatzen. Goiz osoa Berlinetik ibiltzen igaro ondoren, bazkaltzera joan eta arratsaldean Hostelera iritsi gara paseo bat ematen lehortzen nintzen bitartean, azkenean eguzkia atera da.

Bigarren eguna da, Museo batean nago baina Berlingo Harresiaren garaian jendeak nola alde egin behar izan zuen ikusten duten bitartean, ni kajoi batean sartuta nago. Museotik ateratzen gara eguerdian, janaria egiten duten azoka batean nago eta berriz zerbait erortzen da nire gainean, hanburgesa baten saltsa, baina ni urarekin igurtzi ondoren, nire gainetik joaten da.

Goiz osoa hotza pasatzen ari naiz, Kontzentrazio esparru batean bisitan nago, gida batek nolakoak izan ziren urte gogor horiek azaltzen duen bitartean. Haize olatuak ukitzen ari didate denbora guztian, baina goiza pasatzen den bitartean besotik helduta naramate, eguzkia berriz atera delako.

Azkeneko egunean eguzkia eta beroa egin duenez, logelan utzi naute, armairuan, bueltatzeko eguna iritsi arte. Jendea oso nekatur eta triste dagoela nabaritzen dut, eta ni berriz motxilan sartuta nago, etxera berriz iritsi arte. Pirinioetara.